

# EGA

## ATARIKO PROBA

### 2001eko maiatzaren 19a

*Azterketa-eredua: A*

## IRAKUR ITZAZU OHARRAK

1. Galdera-orri hauetatik atera ezazu solte dagoen erantzun-orria.
2. Konproba ezazu azterketa honek 8 orri dituela eta ordena zuzeneandaudela.
3. Idatzi hemen zure izen-deiturak eta NA zenbakia.

<i>NA zenbakia</i>	<i>Izena</i>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<i>1. deitura</i>	<i>2. deitura</i>
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<i>Euskaltegia</i>	
<input type="text"/>	

4. Gogoan izan azterketa honek ordubete iraungo duela, entzutezko ulermeneko galderei erantzun ondoren.
5. Erantzuten hasi aurretik bete ezazu aparteko erantzun-orriko B atala.
6. Ariketa bakoitzean erantzun **egokiena** edo **zuzena** aukeratu eta erantzun-orrian kasuan kasuko koadrotxo arkatzez markatu: erantzun bakarra onartuko da.
7. Erantzun zuzen bakoitzeko puntu bat emango zaizu.
8. Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.
9. Aukera anitzeko test hau era automatizatuan zuzenduko da. Erantzun-orria betetzearekin ulertzen da azterketariak era honetako zuzenketari berariazko onespena ematen diola.

## ENTZUTEZKO ULERMENA

### LEHEN ATALA

1. **Pazientzia handiko pertsona al da Xabier Euzkitze?**
  - a) Bai, pazientzia handia behar izan du bizitza honetan aurrera egiteko.
  - b) Ez, ez dauka egonarri handirik.
  - c) Ez, ez du pentsatzen bereziki pazientzia handikoa denik.
2. **"Sorginen Laratza" egiteko, adibidez, pazientzia handia behar al da?**
  - a) Pazientzia baino nerbioak menderatzeko indarra izatea garrantzizkoagoa da.
  - b) Pazientzia dexente behar da, batez ere entsaioetan.
  - c) Bai, baina zuzenean gehiago nekatzen da.
3. **Zuzenean ari dela pazientzia galdu al du inoiz?**
  - a) Inoiz edo behin bai, noski.
  - b) Bai, baina nahiko erraza da lasaitasunari eustea.
  - c) Albistegietan askotan galdu zuen pazientzia; adibidez, erdarazkoaren orde euskarazko bat sartu diotenean.
4. **Nork egin da "Azpi tiki-tiki-tiki" abestia?**
  - a) Oskar Terolek eta biek egin zuten.
  - b) Oskar Terolek landu zuen.
  - c) Oskar Terolek arima eta dirua jarri zituen.
5. **Zergatik atzeratu dira diskoa plazaratzen?**
  - a) Nahita egin dute, maiatza garai txarra baita horretarako.
  - b) Lantzen berandu hasi zirelako.
  - c) Euzkitze gehienetan lanpetuta egoten delako.

### BIGARREN ATALA

6. **Bertso on batek zer behar du, Xabier Euzkitzeren ustez?**
  - a) Egokitasuna eta grazia izatea nahikoa da.
  - b) Lilura eta xarma ez ezik, egokitasuna eta grazia ere bai.
  - c) Bertsoak aberatsa izan behar du, liluragarria izan edo ez.
7. **Eta disko on batek zer behar du?**
  - a) Hori diskoaren egileari berari galdetzea izango litzateke onena.
  - b) Egileak diskoa gozatzea, bere estiloa azaltzea.
  - c) Diskoa elkarlanean osatua izatea, askoz ere koherenteagoa delako.

8. **Zer adierazi nahi zuen Xabier Euzkitzek bere diskoarekin?**
  - a) Aparteko garrantzia duten gauzak kontatu nahi zituen.
  - b) Besteentzat garrantzirik ez duten gauzek ere norberarentzat garrantzia izaten dutela.
  - c) Bere sentipenak adierazi baino gehiago zorrak kitatu nahi zituen.
9. **Zer dio Xabierrek lanerako aukerei buruz?**
  - a) Aukera handirik izan ez duenez, etorritakoei heldu diela.
  - b) Bertsotan urte asko egin dituela eta lekuz kanpo egon dela.
  - c) Kantua berez iritsi zaion zerbait izan dela, bila ibili gabe.
10. **Joxean Goikoetxearekin aspalditik dauka harremana, izan ere...**
  - a) bertsotan lan asko egin zuten elkarrekin.
  - b) musikak lotu ditu.
  - c) bere lanaren emaitzagatik ezagutzen zuen.

### HIRUGARREN ATALA

11. **Xabier Euzkitzek, Kapi Txikiari buruz ari dela, zer dio?**
  - a) Idazten eta irakurtzen ez zekien gizon maitagarria eta baikorra zela; gizon xarmagarria.
  - b) Azpeitian galdetuko bagenu, laster erantzungo liguketela nor zen.
  - c) Andaluziako Esparraguera de la Serena herrian jaio zela, ez iturririk eta ez eskolarik ez zegoen toki batean.
12. **Ikasle garaiak gogoratzean, zer erantzun du Euzkitzek?**
  - a) Gauza askotan sartuta ibiltzeaz gain, oso alferra zela.
  - b) Geminisen kontuekin ibiltzen zela: pilota, musika...
  - c) Gauza askotan sartuta ibiltzen zela.
13. **Gaur egun nola prestatzen da?**
  - a) Berezko erraztasuna du, eta ez du gehiegi prestatu beharrik izan.
  - b) Komunikaziorako dohainak dituen arren, asko nekatzen da prestatzen.
  - c) "Sorginen Laratza" ordura arte egindako lanen aldean, zaila gertatu zaio.

14. **Laguntzaile onak izan al ditu Xabierrek "Sorginen Laratza" saioan?**
- Bai, laguntzaile ugari izan ditu.
  - Bai, baina laguntzailerik izan ez balu ere berdin-berdin sartuko zen "Sorginen Laratza" saioko abenturan.
  - Itziar Azpeitia ez beste guztiak oso hurbiletik ezagutzen zituen.

15. **Diskoa egin du, baina zuzenean kantatuko al du?**
- Hemendik pare bat astera egingo du lehen proba.
  - Disko batzuk saltzeko ondo etorriko zaio, eta badu asmoa.
  - Hiru-lau toki aukeratu eta hantxe egingo du aurkezpena, hemendik bi hilabetera-edo.

16. **Toki itxiak izango al dira?**
- Disko bakoitzak bere izaera dauka, bere xedea, eta toki berezia eskatzen du.
  - Edozein publikorentzat izan arren, gonbidatuta dagoen jendearentzat baino ez du aurkeztuko.
  - Ez du nahitaez leku itxian aurkeztuko.

## ENTZUTEZKO ULERMENAREN AMAIERA

17. **Konortea galdu eta ..... erori zen lurrera! Zein da aukera egokiena?**
- ziplo
  - mara-mara
  - dinbi-danba
  - zurрут
18. **Ez izan inozoa, Pello ez duzu ..... iritzi aldazaziko! Zein da aukera egokiena?**
- horrela-horrela
  - berehalakoan
  - hor nonbait
  - halamoduz
19. **..... erraz ematen du amore. Zein da zuzena?**
- Hainbat pertsonak
  - Hainbat lagunak
  - Hainbat pertsonak
  - Hainbat lagun
20. **Sinonimo bikote hauetatik bat oker dago. Zein da?**
- Eratu - antolatu.
  - Bukatu - amaitu.
  - Zeharo - erabat.
  - Idorra - emankorra.
21. **Mirenek esandakoa onartzeko modukoa da. Beraz, Mirenek esandakoa ontzat ..... Zein dago oker?**
- ematen dugu.
  - hartzen dugu.
  - deritzogu.
  - jotzen dugu.

22. **Badakit auzi honetan iritzi desberdina dugula, baina beti bezain lagun jarraituko dugu, ..... Zein da jarraipen egokiena?**
- ezta?
  - egiaz?
  - egia?
  - benetan?
23. **Oraindik ere zuzendari segitzen al du? Hura ere ez da, ba, ..... Zein da jarraipen egokiena?**
- herenegungoa!
  - atzo goizekoa!
  - aste honetakoa!
  - aurreko urtekoa!
24. **Zein da zuzena?**
- Oso polita dirudi horrek.
  - Hori oso desberdina da nik esan dudantetik.
  - Areto hori edozein ospakizunerako aproposa duzu.
  - Horixe da niri harritzen nauena.
25. **Zer da negutegi bat?**
- Negu parteko egutegia.
  - Neguko arropa gordetzeko armairua.
  - Abereentzako negurako biltegia.
  - Landareak hotzetik babesteko eraikuntza.
26. **Zenbat eta diru gehiago irabazi, ..... gehiago gastatu.**
- harik eta
  - hainbat eta
  - ahalik eta
  - oraindik eta

27. *Irakasle horrek ..... eta ez dut inoiz gaindituko gai hau. Zein da egokiena?*
- begiz jo nau
  - begitan hartu nau
  - begikoa bota dit
  - begiz hartu nau
28. *Euskara batuan, zein dago zuzen idatzita?*
- Egin erazi.
  - Eginerazi.
  - Egin arazi.
  - Eginarazi.
29. *"..... erregearen begirunea lortu zuen". Ipuin batean, zein izango litzateke ohikoena?*
- Egunak hasi eta egunak amaitu,
  - Egunak atera eta egunak sartu,
  - Egunak argitu egunak ilundu,
  - Egunak joan egunak etorri,
30. *Bakailaoa ..... beratu behar da.*
- urez
  - uretan
  - urean
  - urarekin
31. *Nora jo ez dakigula gaude. Aukeratu baliokidea.*
- Hemen gaude, inondik inora.
  - Hemen gaude, batetik bestera.
  - Hemen gaude, batera ala bestera.
  - Hemen gaude, ez batera ez bestera.
32. *Noiz izango da artelan erakusketa?*
- Datorren ostegunak 20an.
  - Datorren osteguna 20an.
  - Datorren osteguna, hilaren 20.
  - Datorren ostegunean, hilak 20.
33. *Itsasontziaren aurrealdea, popaz bestaldea:*
- branka.
  - masta.
  - kresala.
  - lema.
34. *Lana amaitu barik laga du. Zein dago gaizki?*
- Alde batera utzi du.
  - Bertan behera utzi du.
  - Egiteke utzi du.
  - Lanaren alde egin du.
35. *Gehienetan ekarri ohi ditu, baina atzo menditik etxerakoan Mirenek ..... zizarik.*
- ez zekartzan
  - ez zekarren
  - ez zuen ekartzen
  - ez zituen ekartzen
36. *Ondoko hitzetako bat ez dago ondo idatzia. Zein?*
- Arotza.
  - Harbela.
  - Harresia.
  - Erronka.
37. *Zenbat buru ..... Nola bukatzen da esaera zahar hau?*
- hainbat aburu.
  - hainbeste buruhauste.
  - istilua seguru.
  - zerbaiten aiduru.
38. *Enpresen etekin guztiek nahitaezko dute ohiko bermea Lan-aholkularitzak baliogabetu ez ditzan. Hau da:*
- Jasotako errentak balioesteko ezinbestekoa da Lan-aholkularitzaren ohiko garantia.
  - Irabaziak jaso ondoren, Lan Saileko aholkulariek erabakiko dute ohiko bermea noiz baliogabetu eta noiz ez.
  - Etekinak etxeratu ahal izateko Lan-aholkularitzak berme baliagarri bat eskuratzeko ohitura du.
  - Jasotako aberastasunez baliatu ahal izateko, Lan Saileko aholkulariek horien premia bermatu ohi dute ezinbestean.
39. *Gogor ..... bakarrik lortzen da aurrera ateratzea.*
- saiatzen
  - saiatu ondorioz
  - saiatzearren
  - saiatuz
40. *Josu omen da datorren urteko Frantziako itzulia irabazteko hautagai nagusia. Aukeratu erantzun egokia harridura adierazteko.*
- Bai, ezta!
  - Bai zera!
  - Bai alajaina!
  - Bai bada!
41. *Euskara batuan, zein dago zuzen?*
- Zortziretarako iristen ez banaiz, ez egon nire zai.
  - Zortzietarako iristen ez banaiz, ez egon nire zain.
  - Zortzietarako iristen ez banaiz, ez egon nire zai.
  - Zortzitarako iristen ez banaiz, ez egon nire zain.
42. *Argia jarri ahal izateko hamar metroko ..... beharko dut.*
- luzagarria
  - luzakera
  - luzamendua
  - luzapena

43. *Zer gertatu zen atzoko bileran? Aukeratu erantzun zuzena.*
- Lehendakariaren proposamenarekin inor zegoen ados.
  - Ez zegoen lehendakariaren proposamenarekin ados inor ere ez.
  - Inor ez zegoen ados lehendakariaren proposamenarekin.
  - Inor ere ez lehendakariarekin ez zegoen ados.
44. *Mikelek dirua itzuliko ditala uste al duk? Zein da jarraipen egokiena?*
- Emaiok ilargiari bira!
  - Egon hadi horretan!
  - Jaitsi hadi pikondotik!
  - Hori sineskeria!
45. *Erleak bere ..... sartu zidan. Aukeratu hitz egokiena.*
- isats-orratza
  - eztena
  - orratz-punta
  - ziritxo
46. *Hurrengo esaldietatik, bat ez da zuzena. Zein?*
- Zenbait herrialdetan gosete latza dago.
  - Beste herrialdeekiko harremanak aberasgarri dira.
  - Abereengandik uste baino gehiago dugu ikasteko.
  - Azken metroan lortu zuen abantaila.
47. *Guztiok egon nahi dugu lirain udan, baina horretarako urte osoan zaindu behar! Aukeratu jarraipen egokiena.*
- Horren baitan gaude!
  - Hor dago kokka!
  - Non gogoa, han zangoa!
  - Hori da auziaren erne-muina!
48. *Zein da zuzena?*
- 1998eko urriaren 1.
  - 1998.ko urriaren 1a.
  - 1998eko urriak 1a.
  - 1998ko urriaren 1a.
49. *Pelloc nitaz gaizki esaka jardun duela? Aukeratu jarraipen egokiena.*
- Bada, niri bost axola!
  - Piper bat axola zait!
  - Ez zait piper bat ere axola!
  - Isats bat axola zait!
50. *Jon, ..... datorren igandean antzerkera?*
- joaten al gara
  - joango gara
  - joaten gara
  - joango ahal gara
51. *Adituen aburuz, transgenikoei buruzko beldurra funtsik gabekoa da. Alegia:*
- Adituen iritziak, oinarri sendoak daude transgenikoez kezkatu egoteko.
  - Transgenikoak kaltegarriak dira, baina aditu batzuek ez dute onartu nahi.
  - Jakitunen ustez, ez dago arrazoi sendorik transgenikoei beldurra izateko.
  - Adituak beldur dira transgenikoek ondorio kaltegarriak izango ote dituzten.
52. *Bada gelan otsailaren 29an urteak ..... Aukeratu egokiena.*
- betetzen dituela.
  - betetzen duela.
  - betetzen dituena.
  - betetzen duena.
53. *Ondoko hitz sortetako batean ortografi huts bat dago. Zeinetan?*
- Likitsa, litsa, bitsa, sitsa.
  - Hurrun, hurbil, hurrengo, hurren.
  - Iritsi, oihan, irakatsi, lehiatu.
  - Jaitsi, garrasia, deiarra, oihua.
54. *....., hori duk motorra, hori!*
- Tori
  - Hara bestea
  - Kontxo
  - Alabaina
55. *Lurraren emankortasuna antzutzen ari gara. Hortaz:*
- Lurra gero eta idorragoa da geure erruz.
  - Lurraren emankortasuna ederresten ari gara.
  - Lurraren etekinak gero eta oparagoak dira.
  - Lurra emankor bilakatzen ari gara.
56. *Liburu hau ..... beste guztiak irakurri ditut.*
- ez baino
  - ez ezik
  - baita
  - izan ezik
57. *Horrek ere ez du lotsa handirik! Adierazi zure adostasuna.*
- Ezta pentsatu ere!
  - Egia, lotsatia da eta.
  - Ez, ba!
  - Izango ez du, ba!
58. *Zein da data zuzena?*
- Zornotza, 1998ko urtarrilaren 11.
  - Gasteizen, 2001ko apirilak 12an.
  - Bergara, 2000eko maiatzaren 4ean.
  - Mutrikun, 1991ko ekainak 2a.

59. *Berrogei orrialde falta zaitzkit ..... bukatzeko. Osatu esaldia.*
- liburuarekin
  - liburuaz
  - liburua
  - liburu
60. *Joan al zineten atzo kontzertura? Zeinek adierazten du ezetz?*
- Joango ez ginen, ba!
  - Joan? Hobe joan ez!
  - Ez, joan barik!
  - Zera joango ginen!
61. *Ondoko sigletatik, zein dagokio zerga ezagun bati?*
- EEBB
  - EAE
  - HIES
  - BEZ
62. *Hura ..... , zakur handi hura hurbildu zitzaidanean!*
- estuketa
  - estatusuna
  - estuera
  - estuntza
63. *Ziur ez dakit, baina ..... Aukeratu jarraipen egokiena.*
- ni neu baietzean nago.
  - nik bai noski!
  - nik baietza esango nuke.
  - ni neu baiezkoa naiz.
64. *Aurretik ikasi izan ..... orain ez ..... hain urduri egongo.*
- |             |            |
|-------------|------------|
| a) bazenuen | zinen      |
| b) bazenu   | zinateke   |
| c) bazenuen | zinatekeen |
| d) bazenu   | zinen      |
65. *Hurrengo multzoetan hitz bat lekuz kanpo dago. Zein da multzo hori?*
- Albaitaria, erizaina, artzaina.
  - Aparra, bitsa, hitsa.
  - Eperra, usoa, oilagorra.
  - Zumarra, pagoa, lizarra.
66. *Zein dago zuzen idatzita?*
- Jakintsuen arabera.
  - Nere etxean.
  - Bapateko bertsoak.
  - Jakin ezkeru.
67. *“Zergatik ez diozu itzuli bere dirua?” galdetu nion eta, zakar, hau erantzun zidan:*
- Harexegatik!
  - Ezergatik!
  - Zergatik ez!
  - Horratik!
68. *Zein da zuzena?*
- Nik ez ditut jan zuek jan dituzuen pastel adina.
  - Zenbat eta gazteagoa izan, are eta kasu gutxiago egiten diete gurasoei.
  - Gero eta gehiago joan, hobeto pasatzen dugu elur pistetan.
  - Handiago eta kokoloago doa mutil hankaluze hori.
69. *Aizu, ez diozu gatzik bota entsaladari! Adierazi zure ezadostasuna.*
- Ez, ba!
  - Botako ez nion, ba!
  - Bai arrazoi duzu, erruz bota diot eta.
  - Barkatu, gazi dago, ezta?
70. *Etsia hurbil ikusi dut. Hau da:*
- Dena bertan behera uzteko ez zait askorik falta izan.
  - Eskura izan dut aukera, baina ihes egiten utzi diot.
  - Gertutik erreparatu diot aukariari.
  - Begien aurrean izan dut arerioa, baina ez ondo-ondoan.
71. *Zeuk hil al zenuen txerria? Aukeratu erantzun egokiena.*
- Bai horixe, behingoan egin zituen harenak!
  - Noski! Beste hiltzekorik bazegoen ala?
  - Jakina! Nork bestela?
  - Zer erremedio, nornahik hil behar zuen, ezta?
72. *Biltzarra Gipuzkoako hiriburuan egin zen, Donostian, .....*
- bide batez.
  - alegia.
  - besteak beste.
  - bidenabar.
73. *Zein dago zuzen idatzita?*
- Aspertuta baikaude.
  - Berehala sar erazi.
  - Indiako jaiotz-tasa.
  - Eguraldiaz hitzegin.
74. *Istripua hainbat lagunengatik aurrean gertatu eta inork lagundu ez eroritako gizarajoari! Zein erantzun dago gaizki?*
- Bada gero, e!
  - Halakorik!
  - Sinestea ere!
  - Zenbat horrelakorik!

75. **Gurasoak, umeak etxean ez direla eta, ..... daude.**

- a) kezkatutak
- b) arduratutak
- c) arduratan
- d) urdurik

76. **Noiz hasi ziren liskarrak?**

- a) 1736ko urriaren 1ean.
- b) 1736.eko urriak 1ean.
- c) 1736.go Urriak 1ean.
- d) 1736eko Urriaren 1ean.

77. **Hanka sartu duzu berriro ere; eta orain, beti bezala, ..... Aukeratu jarraipen egokiena.**

- a) ura pasata errota egin.
- b) mando hilari ostikoa jo behar.
- c) itsuen herrian okerra errege.
- d) neuk atera behar babak eltzetik.

78. **Edozein egunkari ..... lan istripuren bat egunero gertatzen dela .....**

- a) hartuko bagenu ikusiko genuke.
- b) hartzen badugu ikusiko genukeen.
- c) hartuko bagenu ikusiko genuen.
- d) hartu bagenu ikus genezakeen.

79. **Euskara batuan, zein dago zuzen idatzita?**

- a) Guk ez genekigun non bizi ziren eta ez genuen deitzerik izan.
- b) Zure adiskideak jolasean zebiltzan guk aurkitu genituenean.
- c) Jokalari guztiak ondo prestatuta dihoazte finalera, eta irabazteko gogo biziz.
- d) Utzi zeniguzun CDak Grammy saria irabazi du.

80. **Madaritan jan genuen! Bestela esanda:**

- a) Sekulako madariak jan genituen.
- b) Madari betekada galanta egin genuen.
- c) Besteak beste, madariak ere jan genituen.
- d) Madarien artean jan genuen.

81. **Zein da zuzena? Iritsiko da une bat .....**

- a) bi alderdien jarrerak bat egingo duten.
- b) bi alderdien jarrerak bat egingo dutela.
- c) non bi alderdien jarrerak bat egingo duten.
- d) bi alderdien jarrerak bat egingo baitutela.

82. **Landarea ez dut behar bezala ureztatu eta ..... Aukeratu jarraipen egokiena.**

- a) ihartu egin zait.
- b) deuseztatu egin zait.
- c) agortu egin zait.
- d) higatu egin zait.

83. **Harrapatzen bazaitut, harrapatu...! Hori entzundakoan zer ulertu behar duzu?**

- a) Mehatxua.
- b) Irrika.
- c) Ahalmena.
- d) Zalantza.

84. **Zein da zuzena?**

- a) Askok maitatzen dira bata eta bestea.
- b) Askok maite dira batak bestea.
- c) Oso maite dute elkar.
- d) Askok maitatzen diote elkarri.

85. **Amaiak agintzen duena betetzen du beti. Hau da: Pertsona hori ..... da.**

- a) agintezalea
- b) esanekoa
- c) egitezalea
- d) hitzekoa

86. **Erresuma Batuko ordezkariak malgutasuna eskatu zien Edinburghen Europako Elkartearen finantziaketa negoziatzeko ari ziren hamaika kideei. Horren arabera:**

- a) Edinburghen ari ziren negoziatzeko Erresuma Batuko ordezkariak.
- b) Ordezkarietako bat finantziaketa zorrotz baten alde agertu zen.
- c) Hamaika elkarterekin negoziatu zuen Erresuma Batuko ordezkariak.
- d) Hamabi ordezkari bildu ziren Edinburghen Europako Elkartearen finantziaketa hitz egiteko.

87. **Gutunaren azalean, noiz jarriko duzu ohar hau: "Eskutik eskura".**

- a) Hartzaileak gutuna, tartean inork irakurri gabe, jaso behar duenean.
- b) Gutuna nonahi eto edonorentzat zabaldu nahi duzunean.
- c) Aurretik norbaitek eskuratu dizula iragarri nahi duzunean.
- d) Gutunaren garrantzia dela eta, igorlearen izena ezkatuta nahi duzunean.

88. **Zein da zuzena?**

- a) Kopuru hori ehun pertsonengatik biderkatuta, dirutza ederra eskura dezakezu.
- b) Behin betiko lana lortzeko, gazte asko edozer egiteko gaiak dira egun.
- c) Dentistatik etorritakoan Imanolek ez zuen afaltzeko gogorik izan.
- d) Atzokoan baino laino gehiago izango dugu gaur.

89. *Ikasketak bertan behera utzi eta banoa mundua ikustera. Aukeratu erantzun egokiena.*
- Ondo doakizula!
  - Bejondeizula!
  - Ez zaitez hor galdu!
  - Agur zuri!
90. *Ortografiaren aldetik, zein da zuzena?*
- Gazte durangarra, Euskal Herriko Unibertsitatera joan da.
  - Gazte Durangarra, Euskal herriko unibertsitatera joan da.
  - Gazte durangarra Euskal-Herriko unibertsitatera joan da.
  - Gazte Durangarra Euskalerriko Unibertsitatera joan da.
91. *Orain heldu aurrekoari eta .... Aukeratu jarraipen egokiena.*
- gero gerokoak!
  - gero ikusiko!
  - gero ikusten!
  - gero dioenak bego dio!
92. *Zein da zuzena?*
- Oporrak iritsi bitartean, udako planak egiten ari ditu.
  - Gaurko eguraldiak aste osoko aro aldakorrari eutsiko dio.
  - Medikuei gehien kezkatzen zaiena da sindromearen hedapena.
  - Bizkaia da ezindu fisikoei laguntza gutxien eskaintzen dituen lurraldea.
93. *Egun hartan denda goiz ireki zuen, bezeroak lehen orduan iristen hasiko zirelakoan edo.*
- Denda ireki baino lehenago hasi ziren iristen bezeroak.
  - Goiz ireki ohi zuen denda, bezerorik etorriko ote zen edo.
  - Bezeroak goiz etorriko zirela uste zuen egun hartan.
  - Egun hartan lehen orduan bezerorik ez zuela izango uste zuen.
94. *Oraingo diruen ordez, euroak eskuratzeko hilabete besterik ez omen dugu izango. Zein erantzun dago oker?*
- Horrekin ere komeriak izango dira!
  - Lanak emango dizkigu horrek ere!
  - Hori ez doa nirekiko!
  - Kontu hori ere ez da makala izango!
95. *Zein da zuzena?*
- Urteak joan ahala, aisialdia ustiatzeko erak bilakatzen joan dira.
  - Lanak edonola baina garaiz aurkezteko erabaki zuten.
  - Herriko jaietan jende gehiegi dagoenez, ezinezkoa da denontzat komunak jarri.
  - Oraingo honetan huts eginez gero, hurrengo batean egitea daukate.
96. *Gaur iragarri den ganadu azoken eta demen debekuak astebete iraungo du.*
- Astebetean ez da demarik, ez ganadu-feriarik izango.
  - Astebetean bakarrik egingo dira ganadu proba eta azokak.
  - Astebete iraungo du ganadu azoka eta demak zabaltzeko planak.
  - Astebetean debekaturik dago ganadu-haragia eta barrukiak saldu edo erostea.
97. *Aspaldiko! Nola zabiltza Iruñea aldean? Aukeratu erantzun egokiena.*
- Hainbesterako, neska!
  - Tira, hainbestean!
  - Tira, hainbeste eta hainbeste!
  - Hainbesterako ere!
98. *Zein da zuzena?*
- Artista zaharrak bere burua leihotik hil du.
  - Artista zaharra leihotik bota da.
  - Artista zaharrak bere burua bota du leihotik.
  - Artista zaharra bizia kendu da.
99. *Bertsolari horrek berehala botatzen du bertsoa. Sekulako .... du horrek!*
- zeresana
  - etorria
  - hitz-aspertua
  - eroapena
100. *Ezagun du horrek gaztea dena! Beste era batera esanda:*
- Gazte guztien adiskide da.
  - Edozein gazte ezagutzen du horrek.
  - Begien bistan dago haren gaztetasuna.
  - Trebetasun handia du gaztea zein den jakiteko.

## OHARRA:

Azterketa bukatzen duzunean, konproba itzazu hurrengoak: (1) erantzunak; (2) NA zenbakia eta eguna ongi markatu dituzula. Ez mugitu zure aulkitik arduradunak horretarako baimena eman arte.

## ERANTZUNAK

2001/05/19

1. c	21. c	41. b	61. d	81. c
2. b	22. a	42. a	62. b	82. a
3. a	23. b	43. c	63. a	83. a
4. b	24. a	44. b	64. b	84. c
5. c	25. d	45. b	65. b	85. d
6. b	26. b	46. d	66. a	86. d
7. a	27. b	47. b	67. a	87. a
8. b	28. d	48. d	68. d	88. d
9. c	29. d	49. a	69. b	89. b
10. b	30. b	50. b	70. a	90. a
11. a	31. d	51. c	71. c	91. a
12. c	32. d	52. c	72. b	92. b
13. c	33. a	53. b	73. a	93. c
14. a	34. d	54. c	74. d	94. c
15. c	35. b	55. a	75. c	95. d
16. a	36. b	56. d	76. a	96. a
17. a	37. a	57. c	77. d	97. b
18. b	38. a	58. a	78. a	98. c
19. c	39. d	59. c	79. b	99. b
20. d	40. b	60. d	80. b	100. c